

III. LEA-ARTIBAI KLASIKOA ARAUDIA

- MARKINA-XEMEINGO eta BERRIATUKO TXIRRINDULARI ELKARTEEK eta CIKAUTXO KOOPERATIBAK Urriaren 10an antolatuko duten III.LEA-ARTIBAI KLASIKOA Martxa Zikloturistan 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena. (*Adin txikikoek tutore baten baimena ekarri beharko dute sinatuta*)
- Izena emateko ordaindu beharrekoak:
 - Federatuek: 15 €
 - Ez-Federatuek: 25 €
- Ordainketa horrek, martxako jan edanez gain, bukaerako opariak jasotzeko eta LEKOIZ gainera egingo den kronoigoeran parte hartzeko aukera ematen du.
- Irteera ordua 9:00etan izango da eta martxako helmugaratze kontrola 15:30-etan itxiko da.
- Martxak bi ibilbide ditu aukeran. Partaideren batek atzerapen handia pilatuz gero, ibilbide luzea egiteko aukera mugatu diezaioke antolakuntzak.
- Kaskoa erabiltzea beharrezko da.
- Ingurumenarekin errespetuz jokatu behar da. Sortzen ditugun hondakinak era egoki batean sailkatzeko guneak egongo dira anoa guneetan eta irteera helmuga puntuetan.
- Parte hartzaile guztiak ertzainen edota udaltzainen oharrak betetzera derrigortuta daude, baita ere Zirkulazio Arauen xedapenak betetzera eta antolatzaileen esanei kasu egitera.
- Herrietatik pasatzerakoan eta baserri bideetan kontuz ibiltzea beharrezkoa izango da.
- Martxa honetako lehiaketarako egokitutako une bakarra Lekoiz mendateko erlojupekoa izango da. Ibilbide osoan errepidea irekita egongo da trafikoarentzako, beraz errespetatu egin behar dira zirkulazio arauak.
- Laguntza mekanikoa emateko bi gune izango dira.
- Antolakuntzak martxan jarraitu ezinik dabilzaneik laguntzeko kotxea (“eskoba”) jarriko du parte hartzaileen zerbitzura.
- Martxak bi anbulantzia izango ditu parte hartzaileen zerbitzura.
- Antolakuntzak martxaren edozein ezaugarri aldatzeko eskubidea du, horretarako arrazoia badagoela ulertuko balu.
- Antolatzaileek parte hartzaileak martxatik botatzeko eskubidea daukate, besteak beste, araudia bete ez dutenak edota antolatzaileen esanak kontutan hartzen ez dituztenak.